



Emakumion etxia eraikitzen

PARTE-HARTZE PROZESUA

*Prozesu parte-hartzailearen
ondorio nagusiak*



OÑATI
dabilen herria

2024/2025

Oñatiko Emakumion
Etxia martxan jarri
aurreko lanak

2024

Udaberria
Prozesuaren ondorioen
aurkezpena

2024

Udaberria
Etxearen jarduerak,
zerbitzuak eta
antolaketa adostea

2023

Udazkena
Etxearen balioak eta
ardatzak definitzea

2023

Udaberria
Etxearen oinarri adostua,
eta barne-banaketa

2022

Udazkena
Topaketa eta bisitak

2022

Udaberria
Etxearen erosketa eta
udal mailako lanketa


2020

Diagnostikoa
Beharraren identifikazio
partekatua.

2018

Partaidetzazko aurrekontuak
Emakumeen etxearen gainera
proposamena

Orain arte
egindako bidea



Emakumion etxia eraikitzen parte-hartze
prozesuaren informazio guztia, hemen.



*Prozesu parte-hartzailearen
ondorio nagusiak*

Oñati, 2024ko maiatza



OÑATI
dabilen herria

Aurkibidea

<i>Sarrera</i>	5
<i>Nondik dator hau guztia?</i>	6 - 9
<i>Etxiaren oinarri teorikoa</i>	10 - 17
<i>Etxiaren xedea, ikusmira eta balioak</i>	18
<i>Etxiaren jarduna</i>	19 - 22
<i>Parte-hartze estrategiak</i>	23
<i>Kudeaketa eta gobernantza sistemaren oinarria</i>	24 - 25
<i>Antolaketa sistema</i>	26 - 27
<i>Etxearen egutegia eta baliabideak</i>	28 - 29
<i>Glosarioa</i>	30 - 32

Dokumentu honetan jaso dira Oñatiko Emakumion Etxiaren eraikuntza prozesu parte-hartzailean jasotako ondorio nagusiak.

Azken bi urteetan hartu ditugun erabakiak jaso dira dokumentu honetan, jakitun izanik hasierako planteamendu bat dela eta, beraz, proiektuan eta denboran zehar egokitzen joan beharko direla. Ezarritako irizpide edo ardatzak sendoak diren arren, etengabeko errebisioan egongo dira, bai parte-hartze prozesuan bai eta etxearen bizitzan zehar ere, unean uneko gogoetak txertatu eta hautemandako beharrei erantzuteko asmoz. Izan ere, etxearen bizitzan zehar emango dugun urrats bakoitza ikasketa eta errebisiorako aprobetxatzea ere izango da gure ibilbidearen erronketako bat.

Emakumeen etxearen funtzionamendu eta dinamikak bilatzen du instituzioen zurruntasunetik ihes egin eta egiteko modu berriak probatzea, eta horretarako baimena ematen dio bere buruari. Beraz, dokumentu hau eta honek ekar lezakeen lanketa guztia egiteko modu berri horien bilaketaren esku uzten da. Baimena ematen diogu gure buruari probatzeko, huts egiteko eta hutsegiteetatik ikasteko.

Nondik dator hau guztia?

2022 urtean ekin genion parte-hartze prozesuari, baina ez ginen hutsetik hasi. 2018ko partaidetzazko aurrekontuetatik abiatuta, 2020an **diagnostikoa** egin genuen: 45 emakume elkarriketatu genituen, egitasmoarekin loturiko begiradak, beharrak, nahiak, usteak, gatazkak eta bestelakoak mahaigaineratu as-

moz. Diagnostiko horretan oinarrituta eta **Oñatiko Emakumion Kontseiluaren laguntzarekin**, egitasmoa jasoko zuen espazio egokiaren bila abiatu ginen. **Kale Zaharra kaleko 13. zenbakiko eraikina** erosi zuen Udalak, eta haren eraberritze lanei eman zien hasiera.



Eraberritze lanak abiatuta, egitasmoaren parte-hartze prozesua irudikatzen hasi ginen. Lehen unetik behar nagusi bat mahaigaineratu zen; Udalak berak oinarri sendo bat eskaintzeko beharra, herritarrei argi adierazi nahia zein bermerekin, baldintzatan eta oinarriren gainean eraikiko den egitasmoa. Ez zen orri txuri bat aurkezten. Badaude muga batzuk; beti daude, nahiz eta askotan ez diren adierazten. **Muga eta aukera guztiak argitasunez prozesuaren hasieratik adierazteak** erabakiak eta eztabaidak errazten

lagundu zezakeelako uste sendoarekin eman genuen lehenengo urrats hori.


Udalbatza osatzen zuten alderdien artean adostuta, hasierako planteamendu bat aurkeztu zen 2022ko urrian eginiko **topaketan**. Oñatiko emakumion etxiaren egitasmoaren helburuak, oinarriak eta proiektua baldintzatu zuten faktoreak jarri ziren mahai gainean. Hala, joko arauak adostu eta prozesuari hasiera eman genion.



Beste herrietan egiten ari zirena ezagutzea izan zen hurrengo urratsa. Bi autobuskada bete genituen, eta inguruko egitasmoak ezagutzera irten ginen. Han ikusitakoak eta entzundakoak herritarrekin partekatuzko lan saio bat egin genuen bueltan.

Hala, aukera guztiak mahai gainean eta zalan-tza pila batekin, sustraietatik hasi ginen lanean: **Etxearen oinarri teoriko partekatua**. Udalak mahaigaineratutako **lau zutabeak definitu** genituen denon artean: *feminismoa, intersektionalitatea, ikuspegi ahalduzaila eta ikuspegi komunitarioa*. Honekin, guztiok hizkuntza berean hitz egiteko oinarria ezarri zen. Hurrengo urratsetarako zorua sendotzen hasi zen.






Etxearen erabilerez eta barne banaketaz aritu ginen gero, plano artean murgilduta. Etxean gertatzea nahi genuen hori definitu genuen denon artean, eta emakumeen etxearen barne banaketa, espazioak eta erabilerak zeintzuk izango ziren marraztu genuen. Hasi ginen geure buruak etxe barruan imajinatzen; geroz eta erreagoa zen.

helburu eta teoriek, eta hasi ginen etxearen iza-tekoa eta egitekoa kokatzen eta mamitzen.

Baina hau guztia nola egingo dugu? Zein modutan eta nortzuen artean? galdetzen genion orain geure buruari. Eta gobernantza eta kudeaketaren inguruko lan saioak egin genituen. Oñatiko emakumion etxian parte hartzeko moduak, gobernantza eta kudeaketa eredu eta antolaketa modua adostu genituen, etxearen zergatiari eta zertarakoari sostengua emateko. **Hasierako proposamen bat, probatzen hasteko.**

2023ko udazkena iritsi zen, eta **ideiak lurre-ratzen** joateko beharra jarri genuen mahai gainean. *Zer izan gura du emakumeen etxeak? Zer egingo da eta nola?* Eta etxearen xedea, ikusmira eta balioak definitu genituen, baita etxeko jardura eta zerbitzuak ere. **Nork, nola eta zertarako** erabiliko zuen etxea. Lur hartu zuten

Oñatiko Emakumion Etxiaren parte-hartze prozesua, oinarri sendoa eta egitura malgudun proiektua eraikitzeko saiakera bat da.



Etxiaren oinarri teorikoa

Oñatiko Emakumion Etxia ekipamendu publiko bat da. Herritarren zerbitzura dagoen eraikina eta egitasmoa, herriko eta herritarren bizitza aberastu, osasuna eta ongizatea sustatu, hausnarketak bideratu eta finean, herritarren bizi baldintzak eta bizimoduak hobetzera bideratuta sortua, beti ere, helburu edo egiteko jakin baten inguruan ardaztuta: gizarte berdinzale eta justuago bat erakitzeke erronkan eragitea.

Herritarren zerbitzura dagoen ekipamendu irekia da, eta herritarren beharrei erantzutea da bere xedea. Hala, **Oñatiko Emakumion Etxiaren** irekiera eta publikotasun hori posible izan dadin, ez da maila politikoan edo erlijiosoan kokapenik ezartzen eta halako jarduerak etxearen dinamikatik at uzten dira.

Herritar bakoitza bere beharretatik eta bere ikuskeratik gerturatzen da Oñatiko Emakumeen Etxera, eta bakoitzaren ikuspegia edozein dela ere, emakumeen etxeak **lau printzipio nagusitan oinarrituta** erantzungo die planteatutako beharrei:

Lau printzipio hauek, etxeko jardunari lotuta ez ezik, etxearen kudeaketari eta erabaki eremuari lotuta ere ezartzen dira. Hala, etxeko jardunak ez ezik, kudeaketak eta erabaki eremuak ere izan beharko dira feminismitik, interseksionalitatek, ikuspen komunitariotik eta ahalduntzetik eraikitakoak.



Feminista




Interseksionala



Komunitarioa



Ahalduntzailea



Feminista

Oinarri teorikoak eta praktika feministak gidatzen du emakumion etxia, pentsamendu feministaren lerro eta dimentsio anitzak kontuan izanik.

Emakumeek¹ gidatutako espazio bat da **Oñatiko Emakumion Etxia**. Herriko emakumeen jakintzen partekatzeetik abiatuta, eta askotariko emakumeen parte hartzea ahalbidetuta, begirada kritiko feministak eraikitzeke espazio izan nahi du emakumeen etxeak. Emakumeak dira euren errealitatearen transformazioa gidatzen duten prozesuetako sujetu, eta bizipen eta zapalkuntza ezberdinak bizi dituzten emakumeak aitortzen ditu bakoitzaren eraldaketa prozesuaren sujetu gidari gisa.


Emakumeon eskubideen defentsa eta eraldaketa soziala ditu ardatz paradigma feministak eta beraz, **Oñatiko Emakumion Etxia** eraldaketarako espazio bat da.

Antolaketa eta saretzerako espazio izan nahi du eta era berean, antolaketa espazio eta bo

rroka ildo ezberdinen arteko harremanerako elkargunetzat jotzen da emakumeen etxea. Mugimendu feministarekin osagarritasuna eta elkar-indartzea bilatuko da. Horretarako mugimendu feministaren eta herriko eragile feministen agenda kontuan izan beharko du, eta elkarlanerako eta elkar osatzeko bideak urratu beharko ditu.

Emakumeak dira emakumion etxiaren gidari eta hartzaile nagusi, sistema patriarkalak zapal dutako sujetu diren heinean. Emakumion etxia, emakumeon saretze, ahalduntze eta babes gune segurua izateko helburuarekin sortzen dira. Hala, gizonen parte hartzea beti egongo da helburu horren bermearen zerbitzura. Gizonek feminismoan eta emakumion etxian izan dezaketen lekua, etengabe hausnartzen eta adosten joan beharreko zerbait da eta **Oñatiko Emakumion Etxiak** ere bere bidea egin beharko du hausnarketa eta adoste horretan.

¹ Ezaugarri biologikoetatik haratago doan kontzeptu gisa definitzen dugu "emakume" sujetua, eta sistema patriarkalak zapaltzen dituen gorputz edo identitate guztiak barne hartzen ditu.




Intersekzionala²

Oñatiko Emakumion Etxiak kontuan hartzen du generoa bestelako diskriminazio faktoreekin gurutzatzen dela (hala nola, arraza (kategoria sozial bezala ulertuta), klase soziala, adina, hizkuntza, sexu orientazioa eta genero identitatea, besteak beste).

Injustizia eta desberdintasun soziala identitatea osatzen duten elementuek osatzen dutela frogatu nahi du teoria honek.

Intersekzionalitatearen izendatze hau, feminista arrazializatuek landu dute bereziki azken urteetan. Diskurtso hegemoniko feministak



Ilustrazioaren egilea, Hiruki Larroxa kolektiboa

“ Aunque utilizemos esa identidad en términos estratégicos, mi fin no es ese. Mi fin es desbaratar lo que a mí me hizo negra, lo que a mí me hizo lesbiana o lo que a mí me hizo empobrecida, que son los sistemas de opresión”

Ochy Curiel

eztabaida politikoetan arrazakeriak zuen presentziari muzin egin nahi izana salatu dute behin eta berriz feminista arrazializatuek eta indarra hartu du aldarrikapen edo salaketa horrek Euskal Herri mailan ere azken hamarkadan.

Diskurtso hegemoniko feministaren identifikazio horri esker, margenetako edo bazterretako kategoriak izendatu eta feminismoaren baitako zapalkuntza eta pribilegioak mahai gaineratu ahal izan dira. Era berean, pribilegioen eta subalternitateen gurutzatzean jarri gaitu guztiok, denok edo gehienok garelako testuinguru ezberdinetan bateko edo beste-ko. Nekez izango da pertsona bat pribilegiatua edo subalternoa arlo guztietan (batzuk oso hurbil egon arren, mutur batean zein bestean). Eta aldi berean, arlo bakar batean konplexitate handiagoa dago begi-kolpe batean hautematen dena baino. Intersekzionalitatearen ikuspegitik testuingurua da gako garrantzitsu bat, eta testuinguruak konplexuak izan ohi dira oso.

Oñatiko Emakumion Etxiak kategoría guzti horiei erreparatu nahi die, kontuan hartuta kategorien arteko harremanak aldakorak eta konplexuak direla eta horrek etengabeko be-

rrikuste eta hausnarketara bideratzen duela feminismoa bera. Ikerketa intersekzionala egin behar da, kategoriak maila desberdinetan aztertuz, unean uneko aldagai eta konplexutasunen baitan.

Oñatiko Emakumion Etxiak diskriminazio faktore anitz horien identifikaziorako eta desberdinkeria horien aurreko artikulazio eta sareterako espazio izan nahi du, harreman justu eta parekideak bultzatuz. Justizia soziala oinarri, gurutzatzen diren zapalkuntza horien gaineko aldarrikapenak ere bere egiten ditu *Oñatiko Emakumion Etxiak*, eta bizipen eta zapalkuntza ezberdinak bizi dituzten emakumeak aitortzen ditu bakoitzaren diskurtsoen, prozesuen eta borroken subjektu gidari gisa.

Oñatiko Emakumion Etxiak, diskriminazio faktore horiek izendatzeaz gain, feminismo intersekzionalaren praktikalako espazio ere izan nahi du. Aniztasun hori aitortzea eta izendatzea garrantzitsua da, baina bitarteko bat besterik ez da.

Pribilegioak aitortu eta etengabeko hausnarketa, dialogo eta errebisioa eskatzen du adierazitako ikuspegiaren materializazioak. Eta *Oñatiko Emakumion Etxiak* dagokionean, tresna eta bitarteko eraginkorak ezarri beharra.

² Dokumentu bizia da honakoa, baina bereziki aitortzen zaio bizitasun hori Intersekzionalitatearen gainean jasotakoari. Askotariko zapalkuntza horiek euren gorputzetan bizi dituzten emakumeen artean eraiki eta adostu beharreko diskurtso bat dela deritzogu, eta haiek izango dira izatekotan, ardatz hau hankaz-gora jarriko dutenak.

Hala, bitartekoak eskaini behar dira etxea bera irisgarri izan dadin, botere edo erabaki guneak irisgarri izan daitezten, kudeaketa formula bera irisgarria eta inklusiboa izan dadin, eta sujetuen arteko harreman parekideak ezarri daitezten.


Horretarako kontuan hartu beharko dira, besteak beste:

- Diskurtsoak parekatzea eta orain arte Oñatin ezkutatuago edo deslegitimatua egon diren diskurtsoei eta bizipenei protagonismoa emateko bitartekoak eskaintzea.
- Irisgarritasun fisikoa. Etxeak bere osotasunean bermatu beharko du irisgarria izango dela mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako.
- Hizkuntzaren kudeaketa. Intersekzioen dantza horretan, euskara bera zapal dutako eremu gisa identifikatzen dugu. Hala, emakumeen etxeak euskararen sustapen eta indartzean ere paper garrantzitsua izango du. Euskara izango da beraz emakumeen etxearen hizkuntza paisaia.
 - Era berean, etxeak bermatu beharko du, Euskara lehenengo mailako hizkuntza izanik, euskal hiztunak ez direnak ez daitezten izan bigarren mailako parte hartzaile. Bermatuko da etxearen hizkuntza³ herritar guztiak ulertzeko modukoa izango dela, eta horretarako beste hizkuntza batzuk, piktogramak, ikurrak, braille-a, irakurketa errazterako irizpideak... erabiliko dira.
- Hizkuntza inklusiboaren erabilera. Hizkuntzaren bidez adierazten den horretan askotariko errealitate edo bizipenak ikusarazten lagundu beharko du emakumeen etxeak, generoari, kulturari, jatorriari, familia ereduari edo bestelakoei dagokienean.
- Denboren eta bizi baldintzen arabera kudeaketa eredu eta jardura ildoak ezartzea. Emakume guztiak ez dute denbora modu berean erabiltzeko aukerarik; batzuek denbora faltagatik (zaintza lanetan ari diren emakumeak, lan bat baino gehiago dituzten emakumeak, edo interna erregimenean lanean ari direnak adibidez), beste batzuek normalizatuta ditugun denborekin ez dutelako bat egiten (baserriko lanetan edo tabernetan eta zerbitzuetan lanean ari diren emakumeak, edo ikasleak adibidez). Etxeak denbora horiek guztiak aztertu eta kontuan izan beharko ditu bere kudeaketa eta jardura ezartzeko orduan.
- Elkarbizitzarako arau, akordio eta bestelako mekanismoak etengabe negoziatu eta esplizitatzea.

Feminismoa etengabe ebaluatzen ari da, eta prozesu horri esker mugimendua oxigenatu, egokitu eta eboluzionatu egiten da. Ikuspegi intersekzionalak emakume guztiak hartzen ditu; disidentziak eta dibertsitateak, uste baitu horrela bakarrik aztertu ahal izango direla pribilegioetan gertatzen diren harremanak eta trukeak, ondoren indarkeria bihurtzen diren zapalkuntzak ekidinez. Zapalkuntza lerroen arteko dialogoak sustatuko du beraz emakumeen etxeak; batak bestea errekonozitu eta elkarrekin lan egitea da intersekzionalitateak planteatzen den erronka nagusietako bat.

³ Hizkuntzaz hitz egiten dugunean, komunikatzeko modu anitzak barne hartzen ditugu. Hala, ikusmen urritasuna duten edo entzumen arazoak dituzten pertsonen beharretara egokitutako komunikazio euskarriak ere kontuan hartzen dira, adibidez, bai eta irakurketa errazterako mekanismoak ere, esaterako.

Komunitarioa



Ezinezkoa da bizitza bakar-bakarrik –bakartasun zorrotzetik - aurrera ateratzea. Nahiz eta askoren ahotik entzuten dugun gutako bakoitzaren aukerak edo lorpenak (lana, lagunak, sozializatzeko lekuak) guk geuk lortutakoak direla, izaki interdependienteak gara. Esan digute bakoitzaren jarrera, gaitasun, disposizio, gogo eta esfortzu indibidualari esker lortuko dugula nahi edo behar dugun hori, inolako kanpo-eraginik gabe. Autosufizientearen eredu bat ezarri da, pertsona bere ekintzen, erabakien eta ondorioen arduradun nagusi egiten duena, begirada hiper-indibidualizatzailetik. Baina gure behar edo nahien asetzea, gure bizitza eta bizimodua bera, hein handi batean, ditugun harremanen arabera dira.

Gure eguneroko bizitzan kantitatezko eta kalitatezko harremanak behar ditugu. Guztiok behar dugu euskarri eta harreman sare bat, oinarri bat. Eta harreman horien artean, beharko ditugu harreman estuagoak, harreman esporadikoagoak, edo bizikidetzari lotutako harremanak. Eta harreman horien guztien bidez, elkar zaintzeaz gain, gauza askotarako laguntza jaso eta emateko aukera izango dugu: gure herrian edo inguruan gertatzen denaz informatzeko sareak, babes sareak, entzuteko eta entzunak izateko lekuak, eta horien bidez, lan eskaintzen berri izanenez, ondokoaren egoera eta bizipenen berri izanenez, antolatzaera iritsi gaitzeko, etxetik ateratzeko motibazio bat aurkitu genezake...

Harreman horiek gerta daitezten espazio publikoak behar dira, kalean bertan (plazak, parkeak, oinezko kaleak, etab.) eta baita ekipamenduak ere. Horiei guztiei “infrastruktura sozialak” deituko diegu, eta infrastruktura sozialak izan daitezke kultur etxeak, liburutegiak, plaza publikoak edo berdeguneak bezalako espazioak, beti ere begirada horretatik konfiguratuak badira. Elkarrizketarako eta elkarrekin egoteko espazioak sustatzen baditu, egoteko lekuak eskaintzen baditu inongo baimen edo sarreara beharrik gabe, pertsona ezberdinen artean topatzeko lekuak txertatzen baditu bere egituraren, pertsonen arteko harreman egonkorak, errepikakorak edo jarraiak ahalbidetuko ditu. Harreman mota horiek egiten dute posible gizarte-kohesioa eta antolakuntza-gaitasuna hobetzeko bidean aurrera egitea, errealitatea eraldatzeko eta hobetzeko eta erronkei erantzun kolektiboak emateko.

Harremanez hitz egiten dugunean boterean jarri behar dugu arreta. Eta botere hori erabili dezakegu abusutik edo gehiegikeriatik, pateralismo, pribilegiotatik edo arduragabekeriatik, baina baita ere arduratik, erantzunkidetasunetik eta kontzientetik. Politika publikoek komunitatea eraiki edo suntsitu dezakete, eta datozen erronkei erantzun ahal izateko, komunitatea eraikitzea izan beharko litzateke generazio berriko politiken erronketako bat. Ekipamendu publiko komunitarioen inguruei marko bat eskaintzen die Gipuzkoako Foru Aldundiak

landutako Ekintza Komunitarioaren markoak. Honek jasotzen du ekintza komunitarioa gizarte erronkei modu kolektiboan heltzen dioten ekimen eta proiektuak direla. Emakumeen Etxeek, oro har, gizartean emakumeek bizi dituzten bereizkeriei modu kolektiboan aurre egiteko erremintak eta baliabideak eskaintzea dute helburu. Zentzu horretan, dokumentuan proposatzen diren 7 printzipio metodologikoak ezartzen dira orientabide gisa: harrera egitea, ekintza erdigunean jartzea, presentzia izatea, bilaketara irtetea, jendearekin bakoitzaren indarguneetatik lan egitea, barruko pertsonekin lan egitea eta lidergo erraztaileak ezartzea.

Feminismoak badu, beste eremu batzuen aldean, ibilbide bat egina norabide honetan. Azken hamarkadako agenda feministan bereziki, pertsonon arteko elkar-dependentsiaren eta zaintzaren gaia jarri nahi izan da erdigunean, eta landu nahi izan da, eta ezagutzen ditugu norabide horretan erreferentziazkoak izan dai-

tezkeen espazioak ere (emakumeen etxeak, autogestio bidez eratutako espazioak Gasteizen, Bilbon, Donostian...). Harreman eredu berriak sustatu beharra ezinbestekoa da, zaintza sistema osasuntsu eta jasangarri bat eraikitze bidean, eta *Oñatiko Emakumion Etxiak* kasu honetan, horretarako espazioak ere eskaini nahi ditu.

Etxeak zubi-espazio eta erreferentziazko-espazio izateko bokazioa du. Zubi-espazioak, etxearen beraren eta ingurunearen arteko harremana egiten duten espazioei deritze eta bi norabidetako harremana eskaintzen dute. Hala, garrantzitsua da herriarekiko harremana zehazterako orduan ere honek izan dezakeen dimentsio komunitarioa nabarmentzea. Zubi espazio honek, gainera, zuzenean konektatzen du emakumeen ahalduntze sozial eta politikoko prozesuarekin, eta bide egiten dio.



Ahalduntzailea

Oñatiko Emakumion Etxiak emakumeen ahalduntzean eragin nahi du, hiru dimentsiotan; indibiduala, kolektiboa eta sozio politikoa. Horretarako espazioak, dinamikak eta jardute irizpideak eskainiko ditu, eta emakumion etxeko jardunean eta kudeaketan, emakumeen ahalduntze kolektibo eta sozio politikorako norabidea ezarri nahi da.

Ahalduntze sozialaz ari garenean, emakumeek autonomia, lidergoa eta eragiteko ahalmen handiagoa lortzeaz ari gara; emakumeen ikusgarritasun eta aitortza sozialaz eta erreferenteak eraikitzeke egiten dituzten ekarpenen ikusgarritasunaz.


Emakumeen ikusgarritasun, lidergo, erreferentzialtasun edo eragiteko zailtasun horren atzean faktore ugari daude: segurtasun eza, aintzatespen falta, zilegitasuna, eredu falta... eta horiek guztiak talde ahalduntzearen bidez landu eta indartu daitezke. Ahalduntze kolektiboak, banakako lanketa hori kolektibizatu eta politizatzeke aukera ematen du.

Talde-ahalduntzea ahalduntze indibidualen batuketa hutsa baino gehiago da; kontzientzia

hartzeta eta lanketa partekatu bat da; elkar zaintza, aintzatespena, zilegitasuna, babesa, segurtasuna eta abar, era kolektiboan lantzearen ondorio da talde ahalduntzea.

Eta talde ahalduntzearekin batera, ahalduntze prozesu indibidualak errazten joan behar da *Oñatiko Emakumion Etxia*. Sistema patriarkalak ezarritako muga, zapalkuntza eta ezintasunak azalatu, eta horiek lantzeko prozesu indibidualak sustatu behar ditu, desberdinkeria eta zapalkuntza egoerak gainditu ahal izateko.

Ikuspegi ahalduntzaile hau, baina, prozesu konkretuetatik at, etxearen jardun osoaren ardatzean txertatzea bilatzen da; eskuhartze guztietan, antolaketan, programazioan, espazioen kudeaketan... Eskuhartzearen kontzeptzio asistentzialetik eta kontsumitzaile-erabiltzaile harremanetik urrundu eta emakumeek eurek gidatutako prozesu ahalduntzaileak jarri nahi ditu bere egitekoaren ardatzean. Emakumeen izan, egin eta erabakitzeke gaitasunean jartzen du arreta, eta eragiteko agentzia aitortzen die.





Ikusi glosarioa 30. orrialdean

Etxiaren xedea, ikusmira eta balioak

Parte-hartze prozesuan adostu da *Oñatiko Emakumion Etxia* definitzen duten balioak zeintzuk diren; zein den etxearen ikusmira edo "amets altua" eta amets altu horretara iristeko bidea nola egingo duen, edo zen den bere xedea.

Definizio bana eta adierazitako termino edo ideia bakoitzaren esanahia edo adieraren gaineko azalpen bat jaso da.

Ikusmira

Noraino iritsi nahi dugu?

Oñatiko Emakumion Etxiak, herriko erreferentzia gune feminista, komunitario*, ahalduntzaile, eta intersektionala izan nahi du; segurua*, askea*, anitza*, irekia*, osasuntsua* eta eraldatzailea*.

Xedea


Nola egin nahi dugu bidea?

Oñatiko Emakumion Etxiak emakumeen ahalduntze* eta saretzea* indartu eta indarkeria matxistaren* detekzio, arreta eta erreparazioarako espazio izan nahi du. Feminismoaren gaineko lanketa politikoa* garatu, ikusezina ikusgarri bihurtu* eta taldeen autonomia eta auto antolakuntza indartu nahi ditu, eta era berean, izateari* eta egoteari* leku egin nahi dio eta ondo pasa eta gozatzeko espazioak ere eskaini nahi ditu. Gobernantza* eta militantziaren inguruko hausnarketa bultzatu eta bide propioak eraiki nahi ditu, eta horretarako errespetuzko* espazioak, eskuzabalak*, atseginak, askeak* eta irisgarriak* sortu nahi ditu, muga edo posizionamendu alderdikoi* edo erlijiosorik gabeak*. Egiteko modu berri bat* eskaini nahi du emakumeen etxeak; beste espazio batzutarra estrapolatu ahal izango dena, eta hori guztia hizkuntza erraz eta ulergarrian herritarrei* zabaldu nahi die.


Balioak

Zerk definitzen gaitu?

Oñatiko emakumeen* etxea espazio publiko* komunitario* feminista* bat da, irekia*, anitza*, dialogantea*, erlazionala*, hezi-komunikatzailea*, horizontala*, zaintzailea*, inklusiboa* eta euskalduna*.



Etxearen jarduna



Etxearen lehentasunezko lan ildoak ezarri dira, eta lan ildo horietako bakoitzean garatu daitezkeen estrategia, zerbitzu edo esku-hartzeak. Hau ere hasierako proposamen bat da eta garapena eskatzen du. Hala, etxearen langintza

propioa eratzea aurreikusten da haren irekiaren aurretik, definitzeko zein izango diren epe motz, ertain eta luzerako ezartzen diren erronkak eta dagozkion jarraipen eta ebaluazio mekanismoak.

Hauetara adostutakoak:

Ildo estrategikoa	Zerbitzu edo jardura
INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIO, DETEKZIO, ARRETA ETA ERREPARAZIOA Emakumeen etxeko estrategia propioaren garapena eta adostutako lan ildo, zerbitzu eta baliabideen kudeaketa.	Aholkularitza edo esku-hartze psikologikoa eta juridikoa indarkeria egoerei aurre egiteko.
	Sentsibilizazioa eta indarkerien identifikazioa sustatzeko, hitzaldiak, solasaldiak eta kafe tertuliak, irakurle taldeak, ekimen hezitzaileak edo normalizatutako ondorezako partekatze espazioak eskaintzea.
	Indarkeria jasaten duten emakumeen eta hauen seme-alaben erreparazioa eta jasandako indarkeriaren aitortzarako bideak arakatzea, sistema judizialek at.
	Indarkeriaren detekzio, bideratze eta akonpainamendurako harrera eskaintzea, Gizarte Zerbitzuekin eta erakunde arteko koordinazio protokoloaren baitan.
	Babes eta akonpainamendu espazioak eskaintzea indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabentzako
	Autodefentsa feminista lantzeko saio eta guneak eskaintzea.
	Indarkeria jasan duten emakumeen arteko taldeak osatzea eta indartzea, arreta, osatzea, erreparazioa, akonpainamendua eta saretzea indartzeko.
	LGBQ+fobian oinarritutako indarkeriaren aurrean, arreta, prebentzio, sentsibilizazio eta erreparazio bideetan sakontzea.
Gizonekin sentsibilizazio eta prebentzio ekimenak burutzea, indarkeria matxistari aurre egiteko bidean erantzunkidetasuna sustatuz eta indarkeriaren desagertzea bultzatuz.	

Ildo estrategikoa	Zerbitzu edo jardura
ETXEAN PARTE HARTU ETA ETXEAREN PARTE IZAN Izaera komunitarioaren garapena eta parte-hartze estrategien koordinazio eta sustapena.	Etxearen izaera eta ibilbidearen transmisioa bermatzeko etxearen harreran, ibilbidea transmititzeko espazio eta euskarriak eskaintzea.
	Etxearen kudeaketa eta antolaketa-espazio irekiak sustatzea: asanbladak, eztabaida-gune irekiak...
	Ekarpenen buzoia edo bestelako tresnen bitartez, parte hartzeko modu desberdinak eskaintzea.
GOGOETA, SENTSIBILIZAZIOA ETA AHALDUNTZEA Ahalduntze eta gogoeta-espazioen koordinazioa eta garapena.	Etxearen parte izatea ahalbidetzeko, etxe barruko komunitatea sendotzera bideratutako ekimenak sustatzea. Harremantze-espazioak, sendotze-espazioak... eskaintzea.
	Jabetze eskolaren bitartez, ahalduntze-prozesuak garatzeko ikastaroak, tailerrak, lantaldeak... eskaintzea emakume guztiei zuzenduta, kontuan izanda bakoitzaren adinak, bizitzako etapak, bizipenak, bestelako zapalkuntza-sistemak, eta abar.
ANIZTASUNA ETA INTERSEKZIONALITATEA Estrategiak eta mekanismoak garatzea, etxearen irekitasuna eta aniztasuna bermatzeko, ikuspegi interseksional batetik.	Ezkutatutako emakumeak eta errealitateak ikustarazteko ekimenak sustatzea. Hala nola, hitzaldiak, solasaldiak eta kafe tertuliak, erakusketak, irakurle-taldeak...
	Elkarren arteko saretzea indartu eta ikusgarritasuna bilatzeko, kolektibo ezberdinetako emakumeentzako espazio propioak (emakume nagusien espazio propioak, emakume migratuen espazio propioak, ama bakarrak...)
	Erreferentzia-leku bilakatzea profil ezberdinetako herritarrentzako, bai egunerokotasunean, bai eta feminismoaren gaineko politiketan ere.
ETXEA ZAINTZA Etxea, etxekideak eta etxearen dinamika elikatu eta aberastera bideratutako ekimenak eta esku-hartzeak diseinatu eta garatzea.	Bila irtetea eta beste espazio/eragile batzuekin elkarriketa eta lankidetzak moduak arakatzeko.
	Adinaren araberako eta kulturartekotasuna lantzeko espazio propioak eskaintzea. Zerbitzu/jarduera berezituak: gazteentzat, nagusientzat, jatorri-anitzekoentzat... Eta osagarritzea desberdinen arteko dialogoa helburu duten zerbitzu eta jardurekin.
	Ondo pasatzeko espazioak eskaintzea etxeko erabiltzaileei; mugarriak eta ospakizunak programazioan txertatzea.
KOMUNIKAZIOA ETA HIZKUNTZA Etxearen komunikazio-irizpideak eta estrategiak adostea eta horien sustapenerako ekimenak bideratzea.	Ongizatea zainduko duen espazio bat eskaintzea, plazerra, erosotasuna eta segurtasunari lotuta. Askatasunez bakoitza bere modura errespetatua izatea eta, kontsumo-eremuetatik at, ondo pasatzeko moduak eraikitzea: ospakizunak, sukaldatuak, kontzertuak, inprobisazioa...
	Gatazken kudeaketarako estrategiak eta oinarriak zehaztu eta mekanismoak aktibatzea.
	Euskara presente egon eta lehentasunezkoa izan dadin, euskara ikastaroak, itzulpen-zerbitzuak... baliabideak eskaintzea eta etxeko akordioen baitan jasotzea.
	Hizkuntza irigarria eskaintzea, etxeak eskainiko dituen edukiak ulertzeko: zeinu-hizkuntza, irakurketa erraza, hizkera ez teknikoa... Eta, era berean, ikasketarako baliabideak eskaini: oinarriko zeinu-hizkuntza ikastaroak, esaterako.
	Etxearen ekimen komunikatibo propioak garatzea: aldizkari propio bat, irati propio bat, kontzejupetiken txoko bat, eskuorriak... Eginiko lanetarako herritarren artean zabaltzeko.

Ildo estrategikoa	Zerbitzu edo jardura
ETXEAREN EGUNEROKOA Etxearen egunerokoarekin datozen ohiko lanen planifikazioa, kudeaketa eta exekuzioa.	Landareak ureztatu, etxea txukundu, mimatu, dekoratu, dekorazioa proposatu...
	Gelak prestatu, jaso, atak itxi eta ireki, sarrera-irteeren kontrola eraman, beharrak jaso, konpondu beharrekoak apuntatu...
	Etxearen harremanak eta komunikazioak kudeatzea, lagapenak, agendaren koordinazioa...
PROIEKTUAREN ZAINTZA Oñatiko Emakumion Etxia proiektuaren jarraipena, ebaluazioa eta garapen-estrategiko eta operatiboa.	ETXEAREN MANTENU ETA GARBIKETA. Mantenu eta garbiketa-arduren planifikazio, koordinazio eta jarraipena.
	Jarraipen eta ebaluazio-sistemak adostu, ezarri eta aldizkako irakurketa eta hausnarketa-espazioak bideratu.
BESTE ESPAZIO edo ERAKUNDEEKIKO KOORDINAZIOA Espazioak sortu, elikatu, dinamizatu, koordinatu.	Estrategia eta lan-ildo sektorial eta orokorrak ideatu, planifikatu, adostu eta garatu.
	Feminismoaren baitako lan-guneen arteko koordinazioa. Emakumeen etxea, Udaleko Berdintasun-departamentua, Mugimendu-feminista eta Emakumion kontseilua.
HARRERA INTEGRALA Etxerako harrera-estrategiaren ideazioa, planifikazioa, garapena, exekuzioa eta ebaluazioa.	Beste departamentu, erakunde edo ekipamenduekin elkarlana eta koordinazioa.
	Espazioaren eguneroko harrera; erabiltzaileekin harremanak zaintzea, bideratzen jarraipena egitea, eskaerak jasotzea, telefonoa hartzea...
	Etorri berriei harrera; etxea kokatzea, etxearen jokabide-kodeak, oinarria eta ibilbideak transmititzea.
	Akonpainamendua prozesu indibidual eta kolektiboetara; baliabideak erabiltzaileen esku jartzea, koordinatzea, kudeatzea, ekimen eta prozesuen bidelaguntza eskaintzea.





Jarduera ekonomikoak-merkatu logika

Jarduera ekonomikoa edo irabazi asmodun ekintza baimenduko da, antolatutako jardueraren helburua bat badator etxearen helburuekin. Jardueraren helburua salmenta soila bada, ez. Dena den, jarduera ekonomikoaren kontzeptua definitu beharra dagoela uste da, indefinizioak ekar dezakeelako ematen diren erantzunak oinarri gabeak eta besteei injustuak izatea.

Muga honek kontuan hartu behar du "irabazi asmorik gabea" izaera juridikoaren atzean denetarik abiapuntuak, aukerak, helburuak eta moduak ezkututzen direla: batzuek lukratzeko ere erabiltzen duten aitzakia da, eta beste batzuentzat, adibidez, ahalmen ekonomikorik ez dutelako, auto-antolatzeko gaitasunik ez dutelako edo laguntasunik bilatzen ez dutelako, bizirauteko estrategia bihurtzen da. Azken hau ikusezina ikusgai bihurtzeko estrategiekin lotzen da.

Argi dago etxea ezin dela izan ekonomikoki aberasteko leku bat, baina argi dago etxean dirua mugituko dela. Etxean ematen diren zerbitzuetan, oinarritzko irizpide ekonomiko batzuk adostea baloratu daiteke (formatzaileen tarifak, hizlariarenak, kontratatutako zerbitzuetan zein irizpide hartuko diren kontuan...). Bestelako harreman ekonomiko edo elkarrengaitzak probatzeko espaziotzat ere ikusten da Etxia: denbora bankuak, baliabide edo jakintzen elkartrukaketa, laguntza ekonomikorako sareak edo dinamika...

Kolektiboren batek dirua bildu nahi badu, etxea erabil dezake beti ere bere kolektiboaren balioak eta diru bilketaren helburuak etxearekin bat datozenean eta etxeari trukean zerbait eskaintzen dionean edo etxearen onurarako zerbait ekartzen duenean.

Espazioen lagapena

Espazioak eta baliabideak hirugarrenei lagatzeko aukera egongo da, beti ere proposatutako jarduera bat badator etxearen helburuekin. Etxearen erabilera kodea partekatu behar da lagapenerako baldintza gisa.

Etxearen ohiko erabiltzaileak

Emakumion etxiaren erabiltzaile edonor izan daiteke, edozein dela ere bere generoa, adina, jatorria... Are gehiago; aniztasuna bilatuko du Emakumion etxiak eta aniztasun horren bila ateratzeko ardura aitortzen dio bere buruari.

Gizonei dagokienez, espazioa erabili ahal izango dute gizonentzat irekitako jardueretan, edo eurek antolatutako jardueretan, bat datozenean jarduera horiek etxearen helburuekin. Etxearen erabilera kodeak adostuko dira etxekide guztien artean, eta bertan jasoko dira elkarbizitzari eta erabilerei dagozkien oinarritzko konpromiso eta akordioak. Akordio horien bidez, espazioen erabilera mugatu daiteke momentu jakin batzuetan, edo bestelako neurriak ezar daitezke, etxearen dinamikaren mesedetan.

Ez da adinaren arabera bereizketarik ezartzen: Edozein adinetako pertsonak har dezakete parte emakumeen etxean, eta adin ezberdinetako beharrei erantzuneko dien programazio eta jardun eremuak diseinatuko dira, adinartekotasunari leku eginez eta adinen arteko elkarbizitza indartuz.

Horrez gain, zaintza beharrak aitortu eta horiek oztupo ez izateko moduak bilatu beharko ditu etxeak.

Elkartek

Elkartearen ekintza esparrua bat badator etxearen xede, balio eta ikusmirarekin, elkarte horrek Etxia erabili ahal izango du bere bilerak egiteko edo bere jarduna aurrera eramateko.

Emakumion etxiak ekimen kolektiboak sustatu, indartu eta lagunduko ditu, eta auto-antolatzen hasteko leku bat izan daiteke, baina ez herriko elkarten sedea. Batez ere, behar eta erronka askori erantzun behar diolako etxeak eta espazioa mugatua delako. Hala, proiektuen indartzea eta autonomia hartzea ere bilatuko ditu.

Parte-hartze estrategiak

Emakumion etxia, Udala, herriko eragile feministak eta etxekideen arteko kolaborazioan oinarritutako egitasmoa da. Bakoitzak bere onena ematen duelako ideian oinarrituta, erakunde, eragile edo norbanako bakoitzak bere jakintzak eta lan tresnak jartzen ditu etxearen zerbitzura. Horrek berarekin dakar jakintza, trebezia, gaitasun eta tresna desberdinen aitortza, eta elkarren arteko osagarritasuna balioan jartzea.

Parte hartzeko modu desberdinak aitortzen dira, bakoitzak bere jakintza, gaitasun edo esperientzien arabera batean edo bestean parte hartzeko aukera eskaini asmoz.

Parte-hartze modu horien arteko hierarkiak hautsi eta rol bakoitzaren estrategikotasuna balioan jartzea beharrezkotzat jotzen da elkarren arteko dialogo horizontalak eman ahal izateko, eta era berean, parte hartze moduen arteko porosidadea eskaintzeko beharra ikusten da; parte hartzeko moduak ez daitezkeen estankoa izan, eta pertsona bakoitzak rol batetik bestera igarotzeko aukera izan dezan.

Honakoak dira identifikatutako parte-hartze moduak, rolak eta bakoitzari lotutako helburuak:

Parte-hartzeko moduak	Helburua
ETXEAN EGON, EKINTZETAN PARTE HARTU Etxekoandre rola	Harrera eta akonpainamendua lagundu, etxeari bizia eman, etxeari eta etxekideei babesa eman. IKUSPEGI FEMINISTA – KOMUNITARIOA garatzeko aukera eman dezake.
BIZIPENAK EDO EZAGUTZAK PARTEKATU Bidelagun rola	Elkar elikatu, diskurtso feminista garatu, ahalduntze prozesuak elkar-lagundu, ahalduntze prozesu kolektiboak indartu. IKUSPEGI AHALDUNTZAILE, KOMUNITARIO ETA INTERSEKZIONALA garatzeko aukera eman dezake.
ERABAKI EREMUETAN PARTE HARTU Gobernanta rola	Etxearen gobernantza eredia demokratizatu, etxearen norabide estrategikoan begirada anitzak txertatu, proiektuaren zaintza. IKUSPEGI FEMINISTA – AHALDUNTZAILE – INTERSEKZIONALA garatzeko aukera eman dezake.
EKINTZA PUNTUALEN ANTOLAKETAN PARTE HARTU (IDEAZIOA ETA EXEKUZIOA) Saltsera rola	Etxearen jarduera eta programazioa elikatu, taldeen autonomia eta eragite gaitasuna indartu, ekintzak lekarkeen bestelako helburua (aldarri politikoak kaleratzea, etxean ondo pasatzeko espazioak elikatzea, lan eremu bat indartzea edo elikatzea...) IKUSPEGI FEMINISTA – KOMUNITARIOA, ETA AGIAN AHALDUNTZAILE ETA INTERSEKZIONALA garatzeko aukera eman dezake.
KOMUNIKAZIOAN ERAGIN Zubigile rola	Etxearen irekitasuna eta aniztasuna bilatzea, egitasmoa sendotzea, finkatzea, balioa ematea, herrian eta herritarrengan eragitea. IKUSPEGI INTERSEKZIONALA ETA KOMUNITARIOA garatzeko aukera eman dezake.
PROGRAMAZIOA LANDU Programatzaile rola	Programazioan begirada anitzak txertatu, prozesua aberastu, programazioaren lurreratze egokia erraztu. IKUSPEGI FEMINISTA ETA INTERSEKZIONALA garatzeko aukera eman dezake.
HAUSNARKETA ETA GOGOETA ABERASTU – OINARRI TEORIKOA GARATU Bisionaria rola	Proiektua jaso, errelatoa josi, gogoeta aberastu. Oinarri teorikoa garatu eta kontrastatu. Maparatzea lagundu - kontatu.
TALDEEN ARTEKO LOTURA Jostun rola [BERTAKO LANGILEAK]	Prozesuak bideratzea, ideiak konektatzea, gauzatzea, taldeen arteko lotura egitea, etxea atenditzea.

Kudeaketa eta gobernantza sistemaren oinarria

Edozein egitasmotan asmoei eta helburuei dagokienez **bi dimentsio** bereiz ditzakegu: bata **sustantiboagoa**, lortu nahi diren emaitza tangibleagoi lotutakoa (ardatzak, helburuak, jarduerak...), eta bestea **erlazionalagoa, harreman-sisteman fokua jartzen duena**.

Parte-hartze prozesuan hasieratik hartu dugun hautua izan da **Oñatiko Emakumion Etxiaren** kudeaketa eta gobernantza ez direla erabaki bat izango, prozesuaren ondorio eta emaitza baizik. Planteamendu honekin bilatu dena honakoa da: eredu bat edukiz betetzera bideratutako parte-hartze prozesua egin ordez, prozesuak emango zituen osagaiak eta kodeak sostengatu ahal izateko adinako kudeaketa eredu, antolaketa modua eta gobernantza sistema diseinatzea.

Hori dena kontuan izanda, ebatzi da **Oñatiko Emakumion Etxian** kudeaketa partekaturako hautua egiten dela. Termino kolaboratiboe-tan planteatzen da espazioaren gobernantza eta kudeaketa partekatua. Horrek ez du esan nahi espazio guztietan ordezkaritza parekatua bilatuko denik; bakoitzaren rola, ardurak eta gaitasunak mahai gainean jarrita, elkarrekiko aitortzan, errespetuan eta tutorizazio ezean oinarritutako elkarlana da bilatzen dena. "Bakoitzak bere onena ematen du" da bere premisa nagusia. Eta proiektuaren beharren arabera antolatuko ditugu bakoitzaren tresna, baliabide, gaitasun edo jakintzak.

Kudeaketa partekatzen duen sistemaren alde egiteko adinako emaitzak eman ditu orain arteko parte-hartze prozesuak. Izan ere, abiapuntutik bertatik gutxieneko hainbat baldintza ematen direla ikusten da:

- Interes partekatua: Etxia interes ezberdinen arteko konbergentziatik sortzen den egitasmoa da.
- Aldeko testuinguru politiko-soziala: herri mailan hainbat esperientzia kolektibo gorpuzten doaz herriko eragileek eta herritar norbanakoek politika publikoetan parte hartu eta eragin dezaten ahalbidetzen dutenak.
- Parte-hartze prozesura hurbildu diren herritarren nahia.

Jakin badakigu, ordea, kudeaketa partekatuko ekimen edo esperientziak, izan emakumeen etxeei buruzkoak edota bestelako kontuetan dabilzatenak, ez dietela definizio bakar bati erantzuten. Aitzitik, kudeaketa partekatuko formula eta osagai ezberdinetako esperientziak aurkitzen ditu.

Horrenbestez, "ko-kudeaketa", "kudeaketa zibikoa" edo "herritarren kudeaketa", "kudeaketa kolaboratiboa" edo "lankidetzaren edo elkarlanean oinarritutakoa", "kudeaketa komunitarioa", "parte hartzean oinarritutako kudeaketa", eta antzeko formulazioak sinonimo bezala erabiltzen dira kasu batzuetan, eta antonimo bezala beste batzuetan. Kontua da praktika ezberdinak termino berarekin adjektibatzen direla; baita praktika beretsuak termino ezberdinekin adjektibatu ere.

Horregatik, izenburuan arreta jarri ordez, kudeaketa ereduari atxiki nahi dizkiogun osagaiak eta konnotazioak argitzeko ariketa da egin duguna, Etxiaren definizio propioa sortzen laguntzeko:

- Aldeen aitortza eta konfiantza.
- Harremanak, parte-hartzea eta lankidetzaren ardatz.
- Eskatu-eman logika eta tutoretza itogarriaren ordez, hartu-eman eta egiten uztearen logikak bilatzea (eskuzabala eta erraztailea).
- Ko-kudeaketak iradoki dezakeen aldean arteko parekotasunaren ordez, elkarlana eta osagarritasuna lehenestea, bakoitzak bere onena eman dezan.
- Testuinguru gaitzaile, ahalduztaile eta agentzia sortzaileak ahalbidetzea.
- Bidearen garrantzia, bide bera ere helburua delako.
- Konpromisoa, inplikazioa eta erantzunkidetasuna.
- Gogoeta eta (auto)kritika.
- Etengabeko eraikuntza, jarraipena eta ebaluazioa.
- Gardentasuna eta kontuak ematea.
- Bermeak.

Osagai horiek gabe, kudeaketa partekatuko esperientziak kamustu edota denboran itxuragabetzeko hainbat arrisku identifika daitezke:

- Partaidetza moduak paper instrumentalean soilik geratzekoa.
- Interes kontrajarrien ondoriozko konplexutasunak ez atenditzekoa.
- Autonomia galdu eta tutoretzarako joera gailentzen bada, administrazioak bere eginaz kudeaketarako eskusibotasuna bereganatzekoa.
- Elkarren beharra eta elkarrekikotasuna ukatzekoa.
- Osagarritasuna gaizki ulertzen denean, eta arduren banaketa logiketara eramaten denean: ezagutzei eta indarguneei etekinik ez ateratzekoa, atenditu gabeko aspektuak agertzekoa edota atenditzen diren esparruak gainjartzekoa.
- Administrazioaren lan-eskemetara larregi eramanez nahi izatekoa.
- Egitasmoa kapitalizatzen (jabetza pretentsioa), eta etxekideei merezitako protagonismoa kentzekoa.
- Udal-gobernu berriak egitasmotik desmarkatzekoa.
- Kudeaketaren gaineko etiketa eta kategorien horma itxietan giltzaperatzekoa eta moldatzeko gaitasuna galtzekoa.

Aipatutakoez gain, nabarmendu behar da Etxia ez dela produktu bat, pertsonak direla protagonistak. Eta, horregatik, egitasmoaren protagonisten gain kanpotik espektatiba handiegia jartzea kalterako izango dela. Zentzu horretan, esperimintatzeko, arriskatzeko eta huts egiteko eskubide aldarrikatzen du Etxiak.

Antolaketa sistema



Antolaketa eredu kolektiborako saiakera

Etxiak bere beharrak eta gaitasunak aintzat hartuta, ardatz, balio, xede eta jomuga zein aukeratutako kudeaketa ereduaren (lankidetzazkoa) arabera hobekien moldatzen den antolaketa egitura bilatu behar du. Hala, parte-hartze prozesuan hartutako norabidearen irakurketatik, ondorioztatu da **Oñatiko Emakumion Etxeari** badagokiola antolaketa eredu kolaboratiborako saiakera egitea.

Hala, kudeaketa-eskema edo eredu horizontalei erantzuten dion antolaketa egitura kolaboratibo baterako hautua egin da **Oñatiko Emakumion Etxean**, esperimentazioa eta bidea egitearen klabeetan aritzeko gaitasuna aitortzen zaion egitasmo baterako nahikoa malgutasun, arintasun eta azkartasuna eskaintzen duelako eta Etxian antolaketa egitura hauek behar dituzten gutxieneko elementuak egon daitezkeela aurreikusten dugulako:

Zirkulu sistemaren artikulatzailea-konektatzailea aurreikusten da: koordinazio/dinamizazio lantaldea.

Parte-hartze motak, parte-hartze helburuak eta rolak identifikatuta daude.

Antolaketa egitura kolaboratiboan boterea diluitu egiten da eta modu kolaboratiboan artikulatu. Hori da **Oñatiko Emakumion Etxiak** bilatzen duena bere antolaketaren bitartez. Hala, soziokrazian oinarritutako egitura proposatzen da: taldeetan banatuta eta taldeen arteko dialogorako espazioak eraikita baina harreman

hierarkikoetatik ihesi. Ez da gobernantza erdigunean kokatzen. Gobernantza, funtzio edo rol bat da, baina hierarkian beste rol edo funtzioen parean kokatzen dena. Kasu honetan erdigunean kokatzen dena koordinazioa, komunikazioa eta proiektuaren zaintza da.

Ez da negoziazioan edo parekidetasunean oinarritzen; osagarritasunean baizik. Hala, espazio bakoitzaren osaera desberdina izango da. Rol batzuk ezin izango ditu instituzioak bete, ez eta kanpoko eragileek ere, eta beraz, etxekideez osatutako lantaldeak izango dira, eta teknikarien laguntza izan dezakete hartutako erabakiak garatzeko edo rola betetzen laguntzeko. Beste espazio batzuetan, aldiz, Udalak eta etxekideek parte hartu beharko dute eta agian baita beste eragile batzuk ere (kontseiluak edo mugimendu feministak, esaterako). Rol eta estrategien beharrek ezartzen dute espazio ezberdinetako osaeraren oinarria, eta horri erantzutera dator egitura. Espazioak elkarren artean etengabe konektatuta egon beharko dira, bateko jardunak bestean eragingo duelako etengabe, eta komunikazio etengabea izan beharko da.

Proiektuaren hastapenetan koordinazio hori egin ahal izateko eta etxekideen talde izaera indartzeko helburuarekin, talde bilera edo asanblada periodikoak burutzea proposatzen da.


Testuinguru politikorako bermeak

Esparru politikoan Etxiaren inguruko kontsentsua mantentzea berebizikoa da, kudeaketa ereduaren eta gobernantza sistemaren etorkizuna kolokan ez jartzeko arriskua baitago bestela.

Egitasmoaren iraupena alderdi politikoen botere txandakatzearen eta ziklo politikoen esku gera ez dadin, testuinguru politikorako hainbat formulaz edo instrumentuz baliatu daiteke Etxia:

- Kanpo eragilez osatutako berme mekanismoak: mugimendu feminista eta emakumion kontseilua, esaterako.
- Akordioak izenpetzea, izan hitzarmen bidez, edota itun bidez. Kasu honetan, lagapena eta

horren menpeko dirulaguntzarik beharrezkotzat jotzen ez direnez, eta etxekideak formalki eratzeak duen kostua kontuan izanik, itunaren aldeko apustua egiten da. Udala da bermeak eskaini behar dituen eta segurtasunerako baldintza minimo batzuk eskaini behar dituen kasu honetan, botere egitura batetik ari delako dialogoan. Hala, dagokion papera etxearen kodeetan erabiliko duela adierazteko, Osoko bilkuran onartutako itun bat onartzea proposatzen da. Itun horretan jasoko dira Udalaren konpromisoak eta betebeharrak, etxearrekin harremanetarako kodeak, eta egoki ikusten diren bestelako aspektuak. Sustatuko da Gobernu aldaketa bakoitzean itun hori berrestea, ahanzturan geratu ez dadin.



Etxiaren egutegia eta baliabideak

Etxiaren ordutegia, egutegia eta baliabide pertsonalen gaineko hasierako proposamen bat adostu da, izan ere, proiektua pentsatzerako orduan garrantzitsuak edo baldintzatzaileak izan daitezkeen faktore gisa agertu dira parte-hartze prozesuan, eta proiektuarekiko edo prozesuarekiko berme gisa joka dezaketen faktoreak, era berean.



EGUTEGIAri dagokionez, adostu da ordutegi zabala aurreikusten dela, beste etxe batzuen ordutegia erreferentzia gisa harturik, eta printzipioz, astelehenetik larunbatera irekitzea planteatzen da, ikasturte osoan zehar. Abuztua, udaberriko jaiak eta negukoak (aste santuak eta gabonak), itxita egotea planteatzen da, bai eta jai ondorengo larunbatak ere. Eta uztailean udako dinamika aintzat hartuz, etxea irekita egongo den egunak murriztea proposa daiteke; larunbatetan ixtea, esaterako.


Proposamenari gaineratu zaio etxea itxita dagoenean ere komunikatzen eta beharrei erantzuten jarraitzeko beharra: etxeak kanpora begira dituen mezuak, webgunea, edo bestelako baliabide eta estrategia komunikatiboaren bidez.



BALIABIDE PERTSONALAK adostea ere beharrezkotzat jo da, egitasmoaren garapenerako faktore baldintzatzaile garrantzitsuenetako bat bezala ikusi da eta. Momentuz, udalaren kontratupeko bi langile kontratatzea aurreikusten da. A 2 kategoriakoak, eta berdintasunean adituak. Aurrera begira, beharren arabera lan taldea osatzen joateko aukera mahai gainean ezartzen da. Aipatu da prozesuan zehar, langile hauek egin beharreko lanak hain desberdinak izanik euren artean, profil anitz eta konplementarioak bilatzearen garrantzia. Etxea ireki aurretik, 2024-2025 ikasturtean egin beharreko lanak bideratzen lagundu ahal izateko, proiektuarekin konektatzen joan ahal izateko, formatu ahal izateko... baliabide pertsonalak beharko direla adierazi da.



ORDUTEGIAri dagokionez, goiz eta arratsaldeko ordutegi zatitua proposatzen da. Larunbatetan aldiz, goizez irekitzea. Ordutegi honetatik kanpo, publikora itxita egongo litzateke etxea, baina aukera legoke lan taldeek edo eragileek etxera sarbidea izateko, bilerak edo ekimen konkrituak ospatu ahal izateko, bai eta ikastaroak edo bestelakoak programatzeko ere. Aipatzen da ordutegia ere etengabeko errebisioan egon beharreko zerbait izan beharko litzatekeela, profil ezberdinetako emakumeen erabilera aukera bermatu ahal izateko. Era berean, aipatzen da etxearen koordinazio eta kudeaketa lanak burutu ahal izateko garrantzitsua dela astean zehar etxeak ateak itxita izango dituen uneak bermatzea.



Glosarioa

Asteriskoak eta matizak



EMAKUME ez hitz egiten dugunean, ezaugarri biologikoetatik harago doan kontzeptu gisa definitzen dugu "emakume" subjektua, eta sistema patriarkalak zapaltzen dituen gorputz edo identitate guztiak barne hartzen ditu. Genero sistema binarioa auzitan jarriko den espazioa. Emakumetasuna eta gizotasuna kategoria sozial, kultural eta ekonomikoak direla ulertuko da eta bien artean botere-harreman bat dagoela. Sistema hori eraldatzeko babes, tresnak eta baliabideak eskainiko dituen espazioa izango da.

PUBLIKOA dela esaten dugunean, honakoa esan nahi dugu: Oñatiko Emakumion Etxia jabetza eta erabilera publikoko eraikina da. Erabilera publikoko espazioa den heinean, sarbide unibertsala, segurua eta inklusiboa bermatzea dagokio, bereziki egoera zaurgarriengan dauden kolektiboak begira. Sarbidez ari garenean, eraikinerako sarbidez gain, jarduera, zerbitzu, parte-hartze espazio eta gobernantza egiturei ere egiten diegu erreferentzia.

KOMUNITARIOA dela esaten dugunean, erreferentzia egiten diogu Oinarri teorikoaren dokumentuak jasotako definizioari. Komunitatea sortu eta komunitatean eragin nahi du, eta indibidualtasun eta komunitarioaren arteko polaritatean arreta jarri nahi du. Norbanakoak zaindu, indibidualismoan erori gabe.

FEMINISTA dela diogunean, Oinarri teorikoan jasotzen den definizioari egiten zaio erreferentzia.

IREKIA dela diogunean, erreferentzia egiten diogu irisgarritasunari bere kontzeptzio

zabalenean; bai espaziorako sarrera bai eta bertako jarduera, zerbitzu, parte-hartze espazio eta gobernantza egiturei dagokienean ere. Ulertzen du irekiera ariketa hori ez dela aitorten huts bat; aldebiko ariketa etengabe bat dela, eta etxeak etengabe landu beharrekoa izango dela irekiera hori.

ANITZA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: Aniztasunaz hitz egitean, alde batetik, erreferentzia egiten zaio feminismoaren subjektu politikoaren eraikuntzari, eta emakume terminoaren definizioari. Kasu honetan, ezaugarri biologikoetatik harago doan kontzeptu gisa definitzen dugu "emakume" subjektua, eta sistema patriarkalak zapaltzen dituen gorputz edo identitate guztiak barne hartzen ditu. Horrez gain, intersektionalitatearen ideiatik tiraka, elkar gurutzatzen diren zapalkuntza anitzak eta errealitate anitzak errekonozitu eta horiek kontuan hartuta jardungo du emakumeen etxeak, oinarri teorikoa jasotzen duen dokumentuan adierazten den terminoetan. Hala, adin desberdinetako emakumeen beharrak asetzera joango da emakumeen etxea, kultur eta jatorri anitzetako emakumeen beharrak eta nahiak, testuinguru sozial eta ekonomiko ezberdinetako emakumeena, eta abar. Eta era berean, kontuan hartuko du aniztasun honi erantzuteak baliabide anitzak eskatzen dituela. Baina gainera, aniztasunaren bila ateratzeko beharra ere jartzen da mahai gainean; ez baita uste berez iritsiko denik aniztasun hori emakumeen etxera. Landu beharreko zerbitzuak; deia landu behar da eta harrera ere bai. Ez da nahikoa etortzearekin;

etortzerakoan integratu egin behar da, behar desberdinei erantzun, maila ezberdinetan parte hartzeko bide eman...

DIALOGANTEA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: Etxeak bertan parte hartzen duten pertsonen eta errealitateen arteko dialogoa sustatuko du. Etxeak eskaintzen dituen zerbitzuen kontsumitzaile soilak ez ditu bilatuko; etxea inguratzen duen ingurunea eta berau erabiltzen duten pertsona eta taldeei entzungo die, ezagutu, eragile aktibo gisa aitortu eta auto antolaketa babestu. Hala, harreman eta dialogo horiek errazteko espazioak eta baliabideak eskainiko ditu etxeak. Era berean, instituzio eta bestelako eragileekin ere bilatuko du dialogorako espazioa eta horren bidez, etxe mailakoak gain, Etxea eta herriaren arteko harremanak eta beste baliabide eta politikekikoak ere bilatuko dira eta espazio horietan interpelatuko du emakumeen etxeak. Zentzu honetan, Oñatiko Emakumion kontseiluarekin elkarlanerako bideak bilatuko ditu.

ERLAZIONALA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: Emakumeen etxeak harremanak sortzea eta indartzea bilatzen du; bai emakumeen artekoak, baita elkarte edo taldeen artekoak ere. Ideia honek elkarrekiko dependentzia aitortzen du eta harreman horiek gizarte eraldaketarako giltza edo oinarri gisa kokatzen ditu.

HEZI-KOMUNIKATZAILEA dela diogunean, "Educación popular" eta Hego eta Erdialdeko Amerikako mugimendu feminista eta komunitarioetatik ikasitako ikaskuntza prozesuen ikuskeraz ari gara. Ikuspegi horren arabera, hezkuntza prozesu parte-hartzailea eta eraldatzailea

da, eta ikaskuntza eta kontzeptualizazioa pertsonen eta taldeen esperientzia praktikokoan oinarritzen dira.

HORIZONTALA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: Botere harremanetan jarriko duela arreta, eta harreman horizontalak sortzea bilatuko duela; erabiltzaileen artean, taldeen artean, erabaki guneetan, estamentu ezberdinen artean... maila guztietan. Harreman horizontalak bilatzeko ariketan, boterea ez ezik, ardurak eta erantzukizunak birbanatzeaz ere hitz egiten da, eta planteamendu horien inpaktu eta inplikazioez etengabeko hausnarketa bilatuko du.

ZAINTZAILEA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: Etxearen erabiltzaile diren subjektu guztien arteko zaintza bilatuko du; horretarako konfiantzazko espazioak eraikitzea bilatuko du, eta konfidentzialtasuna eta errespetua izango dira etxeko harreman eta dinamiken oinarri.

INKLUSIBOA dela esaten dugunean, elkarbizitza bilatzen eta aniztasuna sustatzen duten espazioez ari gara. Horretarako, espazioak erabiltzeko era anitzak identifikatu eta horien arabera moldaketak eta planteamenduak egitea dagokio etxeari, pertsona guztiek izan dezaten espazioa, jarduera eta ekintzak baldintza parekoetan erabiltzeko aukera.

EUSKALDUNA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: euskara lehen mailako hizkuntza duen etxea da Oñatiko Emakumion Etxia. Euskal hizkuntza, kultura eta lurraldea errekonozitzen ditu, eta termino horien bueltako eztabaidei ez die bizkar ematen. Eztabaida edo kontraesankorrak izan daitezkeen ideien dantza horretan, aurretik adierazitako balioak jartzen ditu eztabaidaren irtenbide horretan emakumeen etxeak.

AHALDUNTZEAz hitz egiten dugunean, ahalduntze indibidual, kolektibo eta soziopolitikoari

egiten diogu erreferentzia, oinarri teorikoak jasotako testua oinarri hartuta.

SARETZEA indartzeaz hitz egiten dugunean, helburu amankomunetara iristeko bideak partekatzeaz eta eraikuntza kolaboratiborako prozesuez ari gara.

INDARKERIEZ hitz egiterakoan, indarkeriaren izaera estrukturalari egiten diogu erreferentzia, eta indarkeria kasu banakakoez gain, indarkeria sistemikoari ere erreparatu nahi diogu. Indarkeria mota ezberdinak, balio sozialak, jarrerak... ikusgarri bihurtu nahi ditugu. Indarkeriaren erreparazioan eragin nahi du era integralean, eta prozesuen hasieratik. Indarkeriaren bizirauleen beharren arreta integrala bermatu nahi du emakumeen etxeak.

FEMINISMOAREN GAINEKO LANKETA POLITIKOA GARATU: Feminismoaren gaineko hausnarketa eta eztabaidarako guneak sortu, elikatu eta denboran mantentzea litzateke helburua, emakumeen etxeak jasoko dituen erabiltzaileen joan-etorriarekin elikatzen eta birpentsatzen joango dena. Eta hausnarketa espazio hori lanerako eta ekintzarako espazio ere bilakatzea bilatuko du, etxearen erabiltzaileak, herritarrak eta herriko instituzioak interpelatzea joango dena eta horren bitartez gizarte eraldaketa bilatuko duena.

IKUSEZINA IKUSGARRI BIHURTU esaten denean, normalizatutako jarrera eta indarkeriak ikustarazteaz gain, gizarteko arau sozialak zalantzan jartzeaz ari gara. Horren bitartez, arau zalantzan jarri eta alternatibak sortu eta bistaraztea litzateke helburua.

IZATEAZ hitz egiten dugunean, identifikatzeko gaitasunaz hitz egiten da. Etxearentzat norbanako bakoitza "norbaiz izatea" eta, era berean, etxeak berak norbanako bakoitzaren izaeran eragitea. Hala, etxeak

espazioa eman beharko dio bakoitzak etxeari egin nahi dion ekarpen horiek integratzen. Etxea erabiltzaile bakoitzak dakartzen zatitxoek eraikitzen da. Lekua egin beharko die etxeak bakoitzak dakartzen zatitxoek. Ez da espazio inpersonal bat. Espazio hiperpersonal bat da.

EGOTEA ikuspegi komunitario batetik aztertzen dugu eta emakumeen sarete eta indartze prozesuetan duen eraginaz gain, egoteak berak duen potentzial eraldatzailea ere jartzen dugu mahai gainean. Ez dadila izan kontsumo soilerako leku bat, leku eman behar zaio egoteari, harremantzeari, antolatzeari...

GOBERNANTZAz hitz egiten dugu, eta era argian banatzen ditugu kudeaketa eta gobernantza edo erabakimen espazioak. Erabakimena izatea eta kudeaketa lanak ez dute zertan elkarrekin joan beharrik; bai kontsonantzia. Gobernantza eredu kolektibo, horizontal, justu eta eraldatzaileen aldeko apustua egin nahi du emakumeen etxeak; ohiko eskema hierarkikoetatik irten, eta parte-hartze modu anitzei bide eman nahi die. Gobernantza eredu honek gainera, emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako prozesuen laguntzaile izan nahi du, eta bideak ireki nahi ditu zentzu horretan.

ERRESPETUZKO harremanak sustatuko dituen espazioa; **EPAIRIK GABEA, DESBERDINTASUNETATIK** eraikitzen jakingo duena. Espazio mixto eta ez mixtoen arteko elkarreaginean, kolektibo edo bizipen desberdinetatik datozen emakumeen arteko indartzea bilatuko da eta, era berean, desberdinen arteko harremanen eraikuntzan ere jarriko da arreta. Hala, desberdintasunari ere leku egin nahi dio emakumeen etxeak; desberdinen arteko topaketak bilatu eta elkar errekonozitzeko eta hausnarketak partekatze bideak eskaini nahi ditu.

ESKUZABALA izan nahi du espazioak eta erabiltzaileen arteko harremanetan ere eskuzabaltasuna sustatu.

Espazio **ASKEAK** aipatzen dira, eta oraingoan maila ideologikoan eta diskurtsiboan egiten zaio erreferentzia: Dogmarik gabeko espazioa.

IRISGARRITASUNA planorik zabalenean ulertzen dugu: irisgarritasun fisikoaz gain, irisgarritasun kognitiboa, sensoriala edo sozioemotionala ere atenditu nahi du emakumeen etxeak. Oinarri teorikoen txostenak ere jasotzen du ideia hau.

Etxeak badu **IDEOLOGIA** bat. Etxea **POLITIKOA** da. Baina alderdi politikoezko desbinkulatuta eratzen du ideologia edo izaera politiko hori. Etxeak ez die alderdi politikoen interesei erantzuten.

MUGA IDEOLOGIKO ETA ERLIJIOSOAK aipatzen direnean, ez du esan nahi etxea erlijio edo ideologiaren bizkar eraikiko denik. Erlijioak eta ideologiak

kontuan hartuko ditu, baina ez du horietako baten baitan ardaztuko bere izaera, eta ez du horien sustapenean parte hartuko. (Hau da; etxean ez da errezorako espaziorik egongo, baina kontuan hartuko ditu ramadanaren aldia edo gabonak bere programazioan).

EGITEKO MODU BERRIAK probatu nahi ditu emakumeen etxeak eta horretarako baimena ematen dio bere buruari. Probatzeko, akatsak egiteko, horiek zuzendu eta probatzen jarraitzeko. Egiteko modu berriak gainera maila ezberdinetan planteatzen dira; etxearen kudeaketan, erabaki organoetan, etxean eraikitzen diren harremanetan, erabiltzeko eran... Etengabeko errebisioan dagoen proiektua da Emakumeen etxea.

Informatzen eta komunikatzen, pedagogia egin nahi du etxeak; herrian eragin. Etxe **HEZIKOMUNIKATZAILEA**.

ESPazio SEGURU, konfidentzial eta konfiantzazko bat bilakatzea horren beharra duten

emakumeentzat; etxe sentsazioa emango duen espazio bat. Ahizpatasunaren balioa zabaldu eta transmititzea ezartzen da helburu gisa eta horretarako, zaindutako prozesu, espazio eta harremanak eraiki nahi dira. Ahizpatasuna helburu bezala eta bide bezala.

ASKATASUNA gizarteko arau dominanteekiko eta, kasu honetan, heteropatriarkatuak ezarritako muga edo loturekiko, baita bestelako egitura tradizional eta hierarkikoetatik jasotzen ditugun mandatu eta arauetara ere. Askatasun hori, aspirazio indibidualista eta neoliberal batetik ihesi, praktika indibidual bezain kolektiboa da kasu honetan; prozesu askatzailea ikuspegi feminista batetik ez da auzi pertsonal bat; politikoa baizik.

ERALDATZAILEA IZAN nahi du, jendarte antolaketa feminista, justu eta berdinzaleago bat bilatzen duelako. Gizarte justuaz ari garenean, desberdinkeria desagerpenaz eta ekitateaz ari gara.

